

## BAKE ETA ADISKIDETZEAREN ALDE

### Sarrera

Joan dan 2016.eko otsailaren 13an, Garizumaren hasieran, BAKE TOPAKETA ospatu genduan Gernikako Santa Maria eleizan. Han jasotako gogoetak batu ondoren, ondorengo agiri hau zabaldu nahi dogu orain. Garai honetan, bake eta adiskidetzearen inguruan dogun eretxia eta horreek jadesteko konpromisoa aurkezten doguz. Jaun Berbiztuaren deiari jarraitu nahi deutsagu, bakegile izanik.

### Egiaztatutakoa

Bost urte igaro dira ETAK indarkeriazko jarduera behin betiko itzi ebanetik, oraindik, zoritzarrez, desegin ez dan eta armarik entregatu ez dauen arren. Dana dala, **bizikidetzarako aro barria bizi dogu** gure herrian.

Zaitasun eta ardura barriak sortu dira (krisi ekonomikoa, nazinoarteko terrorismoa, errefuxiatuen krisia...), eta lehentasuna eukan arazoak nabarmentasuna galdu dau. Horrek ezkutatu egin daizez hainbeste urtetako terrorismoaren eta beste indarkeria batzuen ondorioak bizi-bizi sufritzen dituen hainbat lagun eta talderen egoerak.

Gure gizarteko gehiengo sozial eta politikoa «**orrialdea pasatu**» guran bada be, aurretik, zuen idazteko eta oso-osorik irakurteko gauza izan garan baloratu behar dogu. Irakurketa honetan antzematen dogu biktimek ez dabela urratutako eskubideen ordainik jaso, nahiz eta onarpen sendoagoa izan instituzioen aldetik; indarkeria erabili dabenen egoerak proban jarten dauala euren gizarteratzearen helburua; belaunaldi barrieik gizarte ikaskuntza eskatzen dabela, desbardin pentsatzen dauenaren aurkako indarkerian barriro ez jausteko. Batera egindako kontakizuna edo historia be falta jaku eta horretarako, ezinbesteko da alkari entzutea, gauzak egiaztatzea, askatasunez benetako alkarrizketa zabala bideratzea eta horretan gehien lagundu daikeguna Nazaretek Jesus da, berak bakarrik ezagutzen daualako egia oso-osorik.

Zorionez, ekintza eredugarri eta txalogarriak ez dira falta: indarkeriak banatutako pertsona eta taldeen arteko alkarrizketa, hezkuntza arloan eskeinitako bizipenak eta testigantzak, parkamena eskatzea eta emoteko gai izan diranak, besteak beste.

Bizkaiko Eleizeak Ebanjelioaren deia jaso nahi dau: Jainkoak Beragaz adiskidetu gaitu Pazko biktimaren bitartez, Jesus Berbiztuaren bitartez. Birrindua eta txikitua izan danak bakea eta adiskidetza ekarri deuskuz. **Errukiaren Urte Santuan** gagoz; jazoera honek bihotz apal eta errukitsua eskatzen deusku, errukia iragarteko eta errukiaren testigu izateko, parkamena eskatzea, parkamena emoteko eta ertzetan edo kanpoaldeetan bizi diranengana zabaltzeko gauza dan bihotza, hain zuen. Aurtengo **Bakearen Egunerako** mezuan ere, Frantzisko Aita Santuak ardurabakotasuna gainditu eta bakea lortzeko deia egin euskun.

Aita Santuak behin eta barriro aitatzen dauen Eleizaren irudia gauzatzeko eran jarten gaitu: «**kospitale ibiltaria**» bihurtu, gizon-emakume zauritu guztiak hartzeko, euroi arreta eta sendaketa emoteko, horrek dakarzan deserosotasun eta arriskuak jasateko bildur barik. Gure

eginbeharra hauxe da: Espiritu Santuak bihotzeten eta gizartean betetzen dauen lana autortza, kontenplatzea eta babestea, gure sasoiko gizarte errealidadea eraldatzeko.

## **Eginbideak**

Ebanjelioaren ikuspuntua eta Frantzisko Aita Santuaren deiak kontuan izanik, jarrera nagusi bi proposatu gura ditugu, gure eginbideak bideratzeko.

### **A) BIHOTZ-BARRITZEA, hau da:**

- Gure fedea gure bidezko ideologia politikoaren aurretik ipini. Jainkoa da argitu behar gaituen Absolutu bakarra. Beragandik datorkigu parkatzeko eta adiskidetzeko ahalmena. Guri entzule izatea eta Beragandik datoan erronkak jasotzea dagokigu.
- Terrorismoaren eta beste indarkeria batzuen inguruko gure jarrera eta jokaeren autokritika pribatua eta publikoa, bakarkakoa eta alkartekoa egin lehenengo. Orokorean, berba egiteko eta gure inguru erosoeztatik urtetzeko beldur izan gara. Nekezak izan gara gehienbat bakearen alde eta indarkeriaren aurkako foroetan parte hartzeo. Hau aldatu beharra dago.
- Bizi izandakoaren eta gertatutakoaren oroimen partikularra garbitu, arnasbarritu eta eskaini gizartean, beste batzuen parean, terrorismoari eta era guztietako indarkeriari zilegitasuna kentzeo egiatasun eta zuzentasunezko erizpideei jarraituz.
- Urte honeetan, etsaitasunaren, kontuz ibiltearen edo beste arrazoi batzuen eraginez itzitako eremu pertsonal (senideak, lagunak...) eta sozialak (lekuak, jarduerak...) berreskuratu, adiskidetzaile izanik. Bakea hauskorra da oraindik gure hartu-emonetan.
- Hitzarmenak, ulertze, bizikidetza eta adiskidetzerako prozesuak lantzen diran eztabaidea-leku publikoetan egotea zaindu eta sustatu.

### **B) ERRUKIA, hau da:**

- Gure inguruan eta deitzen gaituen eztabaidea-lekuetan, terrorismoaren eta indarkeriaren biktimengandik hurran egon bihotz eta eraginkortasunez. Katigatzen gaituen bildurra gainditu behar dogu eta gure erantzukizunaren garraz atera.
- Biktimen oroimena gizartean eta Eleizan ospatu, batez ere Oroimenaren Eguna, eta gure sendoakaz bat datoan ekitaldi sozial eta instituzionaletan parte hartu.
- Bakerako formal eta informala bultzatu geure eremu eta erakundeetan, besteak beste, hil dabezanen senideen lekukotasuna eta modu batera edo bestera bortxatuak, derrigortuak, torturatuak izan direnenak edo giza eskubideak ukatu jakezanenak eskainiz.
- Autokritika, ahal dan neurrian, eragindako kaltearen autortza eta ordaina suspertu indarkeria erabili dabenengan. Era berean, bultzatu euron konpromisoa bakearen eta giza eskubideen alde.
- Kartzelan dagozanen edo kartzelatik atera diranen bakarkako errehabilitazioaren edo gizarteratzearen alde jardun.

- Errehabilitazio eta gizarteratze hobea ahalbideratuko daben baldintzak suspertu kartzeletan, han dagozanen egoeraz eta euren senideenaz jabetuz.
- Parkamenaren gauzatzean sakondu, parkamena eskatu, emon eta onartu ahal izateko baldintzak sortuz eta babestuz, Jesus Jaunak bialduta eta honen agerpen bizitzaile eta sendatzalea izanda, bizitzako bideetara ateraten dan kristinau konpromisoa kontuan izanda.

*Bilbo, 2016.eko maiatzaren 15a*

*Mendekoste Eguna*

*Bake eta Adiskidetzerako Batzordea*

*Karidade eta Zuzentasunerako Eleizbarrutiko Ordezkaritza*

*Bilboko Eleizbarrutia*

# POR LA PAZ Y LA RECONCILIACIÓN

## Introducción

El pasado 13 de febrero de 2016, con el inicio de la Cuaresma, convocamos un Encuentro por la Paz – BAKE TOPAKETA –, en Santa María de Gernika. Allí se recogieron las reflexiones de los participantes que dan pie a la presente declaración. En ella exponemos nuestro parecer y nuestro compromiso actual para la paz y la reconciliación. Nos sentimos convocados por el Señor Resucitado a colaborar activamente en dicha causa.

## Constatamos que

Hace ya cinco años que ETA cesó definitivamente en su actividad terrorista, aunque lamentablemente todavía no se ha disuelto ni ha entregado las armas. Aun así, **vivimos un tiempo nuevo para la convivencia** en nuestro pueblo.

La aparición de nuevas dificultades y preocupaciones (crisis económica, terrorismo internacional, crisis de refugiados...) abundan en la pérdida de relevancia de un problema que se consideraba prioritario. Ello puede ocultar situaciones personales y grupales en las que se sufren intensamente las consecuencias de tantos años de terrorismo y de otras violencias.

Aunque la mayoría de nuestra sociedad parece deseosa de «**pasar página**», hay que valorar si antes hemos sido capaces de haberla escrito correctamente y leído en su totalidad. En esta lectura, apreciamos que las víctimas no han visto resarcidos sus derechos vulnerados, aun gozando de mayor reconocimiento institucional; que la realidad de quienes han ejercido la violencia pone a prueba el objetivo de su reintegración social; que las nuevas generaciones reclaman un aprendizaje social que impida recaer en la violencia para con quien piensa de modo diferente. También nos falta un relato compartido, para cuya elaboración es necesario un proceso de escucha, de contraste y de diálogo en verdad y en libertad, en la que tanto puede ayudarnos la luz de Jesús de Nazaret, el único que conoce la verdad en su integridad.

Afortunadamente no faltan acciones ejemplares, dignas de elogio. Destacamos entre otras el diálogo entre personas y grupos separados a causa de la violencia, experiencias y testimonios ofrecidos en el ámbito de la educación, casos de quienes han sido capaces de pedir perdón y de perdonar.

La comunidad cristiana se siente interpelada por el mensaje del Evangelio: Dios, a través de la Víctima pascual, Jesús Resucitado, nos reconcilia con Él. El destrozado y eliminado trae consigo la paz y la reconciliación.

La comunidad cristiana está convocada al **Año Jubilar de la Misericordia**, que demanda un corazón humilde y compasivo, capaz de testimoniar la misericordia, de pedir perdón, de perdonar y de abrirse a las personas y grupos que viven en las periferias existenciales. También en la **Jornada Mundial de la Paz** del presente año, el Papa Francisco nos invitó a vencer la indiferencia para conquistar la paz.

Por todo ello, es preciso hacer realidad la imagen de la Iglesia como «**hospital de campaña**» que acoge a las personas heridas, y se vuelca en su atención y sanación, sin miedo a sufrir por ello incomodidades y riesgos. Nuestra tarea consiste en reconocer, contemplar y respaldar la labor del Espíritu Santo en el corazón humano para transformar la realidad social de nuestro tiempo.

## **Propuestas de actuación**

La perspectiva evangélica y nuestro compromiso cristiano están presentes en la propuesta de las dos actitudes fundamentales que han de configurar nuestro actuar:

### **A) LA CONVERSIÓN, que significa:**

- Anteponer nuestra fe a nuestra ideología política. Dios es el único Absoluto que nos ha de iluminar. De Él nos viene la capacidad de humanizar, perdonar y reconciliar. Es necesario escuchar y dejarnos interpelar por Él.
- Realizar primeramente la autocrítica privada y pública, personal y comunitaria, de nuestras actitudes y comportamientos respecto al terrorismo y otras violencias. En general, hemos tenido miedo a hablar, a salir de nuestra zona de confort, remisos a participar en foros por la paz y en contra de la violencia. Esto ha de cambiar.
- Humanizar, perdonar y reconciliar. Es necesario escuchar y dejarnos purificar, sanar y ofrecer socialmente nuestra memoria particular de lo vivido y acontecido, en contraste con otras, siguiendo los criterios de veracidad y justicia para la deslegitimación del terrorismo y de toda violencia.
- Recuperar de forma reconciliadora espacios personales (familiares, amistades...) y sociales (lugares, prácticas...), abandonados durante todos estos años por enemistad, precaución u otras causas. La paz sigue siendo aún frágil en nuestras relaciones interpersonales.
- Cuidar y promover nuestra presencia en foros públicos donde se trabajen acuerdos, procesos de entendimiento, convivencia y reconciliación, acordes a las líneas diocesanas.

### **B) LA MISERICORDIA, que significa:**

- Mostrar nuestra cercanía afectiva y efectiva con las víctimas en nuestro entorno cercano y en los foros a los que se nos llame. Es necesario superar el miedo paralizante y salir con la llama de nuestra responsabilidad.
- Celebrar eclesialmente la memoria de las víctimas, particularmente el Día de la Memoria, y participar en los actos sociales e institucionales coherentes con nuestras convicciones.

- Impulsar en nuestros ámbitos e instituciones una educación formal e informal para la paz, que incluya el testimonio de familiares de víctimas asesinadas, de quienes han sufrido extorsión, acoso, torturas o conculcaciones de derechos humanos.
- Fomentar en quienes han ejercido la violencia la autocrítica, el reconocimiento y reparación en lo posible del daño causado, y el compromiso por la paz y los derechos humanos.
- Trabajar por la rehabilitación individual y por la reintegración social de quienes se encuentran privados de libertad o han abandonado ya la cárcel.
- Favorecer la adopción de condiciones penitenciarias que permitan una mejor rehabilitación y reinserción, atendiendo a la situación de las personas encarceladas, y también de sus familias.
- Profundizar en el ejercicio del perdón, creando y fomentando condiciones que hagan posible pedirlo, otorgarlo y acogerlo, teniendo presente el compromiso cristiano que sale a los caminos de la vida enviados por el Señor Jesús y contando con su presencia vivificante y sanadora.

*Bilbao, 15 mayo de 2016*

*Solemnidad de Pentecostés*

*Comisión de Paz y Reconciliación*

*Delegación Diocesana de Caridad y Justicia*